

**FRAI BARTOLMEREN  
EUSCAL-ERRIJETACO OLGUEETA... LIBURUAREN  
ARGITARALDIEN NONDIK NORAKOA**

Euskal idazle klasiko baten lanen azterketa beti da ondo etorria euskal kulturarako. Eta azken hamarkadetan gaitzat Frai Bartolome eduki duten azterketek, eta beraren lan batzuen argitaraldiek errotan gaitue azterketatxo hau zabaltzera. Batez bere datorren urtearen hasieran Frai Bartolomeraren idazlan guztien ardiraldi kritikoa kaleratzeko asmoa daukagun ezker, egokitzat jo dot argitarapen horri bidea egitea.

Nire asmoa ez da egindako argitaraldien azterketa edota kritika egitea, hori beraren idazlan osoak argitaratzean egingo dogu eta. Oraingo honetan, izenburuan aitaturako Frai Bartolomeraren testuaren agerpen ezberdinen kanpoko historia laburra egin, eta argitaraldien artean aurkitu daitekezan menpekotasunak edota erlazioak argitu nahi ditut.

**I. Testuaren eta argitaraldien historia dela eta.**

Frai Bartolomeraren euskarazko lau liburuen artean txikiena dogu aztertzer goazen hau (*Euscal-errijetaco olgueeta...*), baina historiarik luzeena daukana, batez ere bere argitaraldiak kontuan hartzen baditugu.

1) Ez dakigu non diran lau aldiz, gutxienez, idatzi zituan jatorrizko eskuizkribu autografoak; hala ere, badaukagu azken emaitza, 1816ko liburua.

2) Bartolomek berak argitaratu eban 1816an: "*Euscal-errijetaco / olgueeta, ta dantzeen / neurrizco-gatz-ozpinduba / Aita Prai Bartolome / Santa Teresa, / Marquinaco Carmen / Ortozeco / Predicadoriac prestauba.* / ——— / Iruñean. Joaquin Domingo / Nausijaren, eta Gaztiaren / Liburuguillaan. / Biar dan ondo izatiagaz. / 1816 urtian.", 208 orr., 13'5 x 0'9 zm (pasta: 14 x 10 zm).

3) 1904(-1914)an Dodgsonek argitaraldi berezi eta polit bat egin eban: "*Euscal-errijetaco / olgueeta, ta dantzeen / neurrizco-gatz-ozpinduba / Aita Prai Bartolome / Santa Teresa, / Marquinaco Carmen / Ortozeco / Predicadoriac prestauba.* / ——— / Iruñean. Joaquin Domingo / Nausijaren, eta Gaztiaren / Liburuguillaan. / Biar dan ondo izatiagaz. / 1816 urtian.", [Dodgsonen argitaraldia (A. Campionen ohar batzuekin). Iruña, 1904 (imprimatua), 219 orr., 140 x 0'95 zm (pasta: 14'5 x 10'2 zm), baina 1914an argitaratua edo zabaldua].

4) Geroago beste argitaraldi bat agertu zen, hainbatean 1816koaren kopia izanik "faksimila" deitu daitekeena. Lur argitaletxeak 1978an, Donostian, Hordago (Euskal klasikoak, 2) sortan (20'5 x 14 zm) argitara emona. Hala da bere, egin-eginean, argitaraldi honek 1816ko lehen argitaraldia modukoa ez dalako -neurri handiagoak ditu- nahasteak sortu izan ditu.

5) 1986 eta 1987. urteetan bi argitaraldi egin ziran, egileek "edizio kritiko" modura eskainiak; ez batak ez besteak, ez ditue betetan halako kalifikazioa jasoteko beharrezkoak diran baldintzak.

Bata, Luis Mari Mujikak gertatu eta 1986an argitaratua dogu: *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba...*, Bilbao, 1986, 197 orr. (Edizio kritikoa: Luis Maria Mujika). (Euskararen lekukoak-12).

**EUSCAL - ERRIJETACO  
OLGUEETA, TA DANTZEEN**

**NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA**

***AITA PRAI BARTOLOME***

**SANTA TERESA,**

**MARQUINACO CARMEN**

**ORTOZECO**

***PREDICADORIAC PRESTAUBA.***

**IRUÑEAN. JOAQUIN DOMINGO**

**Nausijaren, eta Gaztiaren**

**Liburuguillaan.**

**Biar dan ondo izatiagaz.**

**1816 urtian.**

6) Bestea, lehenagotik eskolak emoteko gertatua eduki, eta urtebete geroago, 1987an, Aita P. Altunak argitara emona: *Euscal errijetaco olgueueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba (1816)*. Bilbao (Universidad de Deusto), 1987. (Edizio kritikoa: P. Altuna), 126 orr.

7) Egin-eginean ere, izan dogu Bartolomeren idazlan hau eta beste euskarako idazlan guztiak gertatuta eukazan beste ikertzelale sutsu bat ere; herau, Aita Lon Arteaga izan zan. Argitaratu ez zan eskuizkribu handi bat eukan gertatuta. Eskuizkribu horri honako izenburua jarri eutson: "*Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Madariaga Garate'ren / Idazlanak / (1768-1835) / GERTATZAILLE: ARTEAGA TAR LON, K.O.*". Lan hau izan da Frai Bartolomeren idazlan "guztiak" argitaratzeko aha-leginik handiena... Jakina, *Euscal errijetaco olgueueeta...* 1986an (M. Mujikak) eta 1987an (P. Altunak) argitaratzerakoan ez eben Aita Lonen eskuizkribu horren barririk izan.

8) Ezin ditugu ahaztu, era berean, gero ikusiko dogunez hain eragin handia izan dabon beste argitaraldi batzuk (testu informatizatuak, edo testu konputerizatuak) ere.

a) Lehen eta behin, Euskaltzaindiak daukan EJI Eren (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte) testua. Ezin izan dogu erabili, ez dalako osoa, eta idazkera modernoan jasota dagoelako.

b) Josu Lavin jaunak 1995ean disketean "argitaratu" eban kopia; nahikoa zehatza da. Geroago aztertuko dogu testu hori, L. M. Mujikaren argitaraldiari dagokiozan zerak argitzera-koan.

## II. Argitaraldien nondik norakoa.

Egin diran argitaraldi ezbardinen deskripzio laburra egin ostean, ez dot argitaraldi ezbardin horreen kalitateari buruzko kritika edo ikerketa egiteko asmorik; hori beste baterako itziko dot... Idazlan labur honetan argitaraldi ezbardinen artean izandako menpekotasunak eta erlazioak jarri nahi ditut agerian.

Horrek, handi-handika begiratuta, begi-bistako zerbaít dala dirudien ere, zailtasunak ditu, argitaratzaileek, egin beharrekoa izan arren, ez dabelako jakitera emon zein izan dan argitaraldirako erabilitako testua. Eta, horrela, argitaraldi kritikoak dirala esaten badabe bere, ez dabe argi agertzen euskarriztat 1816ko oinarrizko lehen argitaraldia hartu daben ala "faksimila" deitua nahiz beste testu menkanizaturen bat erabífi daben.

Oraingo honetan, argitaraldi ezhardin horreen artean, argitaratzaileek agerian autortu ez baditue bere, izandako erlazioak edo menpekotasunak argitzen saiatuko naz, hau da, "Euscal-errijetaco olgueeta" liburuaren argitaraldien nondik norakoa ikusiko dogu.

### **1) Eskuizkribuak eta 1816.eko argitaraldia**

Bartolomeren lehenengo eskuizkribuzko hitzaldian hasi, eta 1816ko argitaraldirarteko bidea luzea izan zan. Bide horretan, gutxienez, hiru edo lau eskuizkribu izango ziran: a. Hasieran, hitzaldi banaka batzuk. b. Geroago, Bartolomek eskuizkribu osoa idatzi behar izan eban Ordenako nagusientzat eta zentsoreentzat. c. Hurrengo, Ordenako Nagusiak zentsoreen zuzenketak argitaratzeko baimendutako liburuan sartzeko aginduko eutsen Bartolomeri, eta honek barrero idatzi behar izango eban. d. Eta, azkenik, inprimategirako kaligrafía onean kopiatu beharko eban *Icasiquizunac* liburuaren kasuan egindakoaren antzera.

Uste dot beste eskuizkriburen bat bere idatziko ebala... Luzaroan eduki eban lana idatzita, kalera atera aurretik. Liburu hau 1816an argitaratua izan bazan bere, seguruenik eginda eukan 1806an. Lehenengo egin eban *Icasiquizunac* liburuaren eskuizkribuan (1807, 253, 254 orr.), argitaratzeko gertu eukala "piesta, erromeria eta abarreko gaiak" deituriko lana esaten dau. Hau da, seguruenik, *Euscal-errijetaco olgueeta*... liburu.

Horrela, Bartolomek, gutxienez, host bide luze egin zituela 1816ko argitaraldia egin aurretik ageri jaku: a. Hitzaldi banaka batzuk. b. Liburuaren eskuizkribu autografoa (c. 1806). c. Lan

osoaren 2. idazketa (1816). d. Inprimategirako jatorrizko kopia (1816). e. 1816.eko argitaraldia.

### **2) 1816.eko argitaraldia eta Dodgsonena (1904/1914).**

Testuaren banaketa, orrialde, tamainu, etabarri dagokienean, antzekoak dira Frai Bartolomek 1816an eginitako lehen argitaraldia eta mende bat geroago Dodgsonen egindakoa; hau da, 1-207 orrialdeetako testu berbera dator bi argitaraldietan. Dodgsonen argitaraldiak (1904.ean inprimatu eta 1914.ean azalezta-tu eta banatua) zuzen-zuzen jarraitzen deuto Bartolomek 1816ko argitaraldian argitara emondako testuari.

Dodgsonen testua nahiko ona da, baina ez deutoe zor jakon besteko begirunerik agertu geroago etorritako argitaratzai-leek. Beraren testua nahiko fidagarria da. Testuaren transkripzioa zertxobat modernizatuta dago, aldaketa txiki batzuk egiten deutozala puntuazioan nahiz garaiko ortografia estiloaren arabera hitzak batu eta banantzean. Era berean, aldatu edota era modernoa ematen deute letra batzuei; horrela, *b* erabiltzen dau Frai Bartolomek darabilen *v* letraren ordez. Dodgsonen zuzendu egiten ditu inprimategiko hainbat akats, inozika huts egin eta bere akatsak sartuz.

Dodgsonen, handinahikeria barik lan on bat egitea lortu eban. "Kritikoak" deituriko 1986 eta 1987ko bi argitaraldiek, ostera, oinarritzko akatsa dakarre, hain zuzen ere, Dodgsonen argitaraldi hau ez erabiltzea.

### **3) 1816ko argitaraldia, 1978ko "faksimila" eta ondorioak.**

Hordagok 1878an Frai Bartolomearen liburuaren "faksimil" antzekoa argitaratu ebanetik, argitaraldi barri hau izan da askoren iturburu bakarra eta, beraz, garrantzitsuena. "Faksimil antzekoa dinot" ez dalako bardina, ez neurrian ez eta testuari dagokionean; hau da, akats txiki batzuk ditu testuak, gero ikusiko dogun legez.

#### 4) Josu Lavin - L.M.Mujika eta faksimila.

Josu Lavinek Bartolomerren liburua testu informatizatu edo konputarizatu eran argitaratu zuen 1995ean, eta L.M. Mujikak bere "edizio kritikoa" 1986.ean. "Faksimila", oster, 1978.ean argitaratu zan. Hiruren artean oso-osozko menpekotasuna ageri da.

a) Hasteko, Josu Lavinek bere lanerako "faksimila" erabili ebala, eta ez 1816.eko jatorrizko liburua esan behar dogu. Hau, J. Lavinek jasoten dituen faksimileko akats txiki bitan ageri jaku:

aa. 59. orrialdean, 10. lerroan "darjola" (horrela jaso dabe L.M. Mujikak eta J. Lavinek) irakurtzen da, faksimilean *dar* eta *jola* artean tarte txiki bat ageri dan arren. Hala ere, 1816ko jatorrizkoan *darjola* ageri da, *i* beste letrak baino motelago inprimatuta ageri bada ere. Dodgsonen argitaraldira begiratu balebe, *darjola* hitza argi inprimatuta aurkituko eben.

bb. Antzerako zer bait, baina oraingoan alderantziz: 77. orrialdean, 14. lerroan *alabao* "ageri" da (hala dakarre Mujikak eta Lavinek). Hala ere, jatorrizko testuan *alabac* ageri da, *nahiz* eta *c* gainean mantxatxo bat daukala agertu; faksimilak, behar dan gardentasunez egina ez izatean, *c* hori *o* bihurtu eban. Kasu honetan ere Dodgsonen zuzen dakar: *alabac*.

b) Mujikak eta Lavinek eskainitako testuei dagokienean, egin dudan asterketatik esan daiteke: goitik beherako menpekotasuna ageri da euren artean; argi eta garbi esan daitekegu baita bestearen transmisio hutsa dala edota biak informatizatutako beste testu bakar batetik jasoak izan direla; baina jakin dudanez, Lavinek Mujikagandik jaso zuen testua eta obetzen asko ahalegindu zen.

Berau, batez bere, nabariago ageri da biek daukezan akatsetan, biek akats berdinak ditue eta. Esaterako, Lavinin akatsak (bere asmoen kontra 1816ko testutik aidentuz) Mujikaren testuan ageri dira. Akats batzuk jasotzen ditut jarraian: (aitatzen diran orrialdeak jatorrizko 1816ko testuari dagokiozanak dira):

5. or.: laarregui (Lavin+Mujika: laarregi),  
 22: pozgarrijac (L+M: pozgarrijaz),  
 24: *ta* (L+M: ta),  
 33: *Dantziaren* gainian (L+M: Dantziaren),  
 61: zorzigarren (L+M: zotzigarren),  
 66: edu (L+M: edo),  
 99: emacumiai, (L+M: emacumiai.),  
 110: eehe (L+M: eeche),  
 120-121: ezainac (L+M: zainac),  
 142: Apostolubac (L+M: Apostulubac),  
 144: Eleisaan (L+M: Eleissan),  
 153: Juaten (L+M: juanen),  
 154: da (L+M: ba),  
 155: *ezagaz.* (L+M: *ezagaz.*),  
 157: albadaiz (L+M: albadiz),  
 167: ezdala (L+M: ez dala), etab.

Testu honeek argi erakusten deuskue Mujikaren eta Lavinen testuen artean dagoen lotura.

### 5) *Altunaren testua*

Patxi Altunak beste "edizio kritiko" bat argitaratu eban 1987an; hau bere ez da hain kritikoa; eskolan erabiltzeko testu on bat baino ez da; itxura danez, Altunak gertatuta eukan lan hau L.M. Mujikak bere argitaraldia 1986an argitaratu ebanerako.

Jarraian Altunaren zehaztasun-etzak edota konturatu barik Bartolomeri egindako zuzenketak (oharretan beste kasu batzuetan legez jakitera emon bakoak) ekarriko ditut, nondik hartu eban testua edota nondik transkribatu eban jakitera emoteko.

Beraz, hurrengo lerroetan, Altunak, beste batzuetan egin izaten dauan modura, "oharretan ezer esan barik" eginiko zuzenketen (edo berak egindako akatsen) zerrenda dakart hona; batzuk ondo zuzenduta dagoz, baina beste batzuk ez; Bartolomek nahiz akatsa eginez nahiz zuzen jardunez horrela idatzi ebala testua jakitera emoteko jasoten ditut; dana dala, zerrenda



honen arrazoi nagusia zein izan zan Altunak erabilitako testua jakitera emotea da.

Bestalde, gogora ekarri nahi dot ez ditudala hemen jasoten, Altunak oharretan txarto azalduta dakazan hitzak edo esakunak; ez ditut kontuan hartuko, ezta bere, hitzen arteko bananketa-batuketa batzuk, ezta puntuazioari dagokiozan zerak eta...

- 8.or: estalguijagaz (Altuna: estalquijagaz),
- 13: olguetiaren (A: olgueetiaren),
- 14: obligacinoiai (A: obligacinoai),
- 17: diversinojac (A: diversinoiac),
- 21: lecuban (A: lecuan),
- 22: viotzeco (A: vijotzeco),
- 26: olgueetiaren (A: olguetiaren),
- 29: diversisinoia, (A: diversinoia; y Mujikak ere berdin),
- 35: Israel (A: Israel),
- 37: babacocharentzat, (A: bacocharentzat, Mujikak ere berdin)
- 47: tanbolinagaz (A: tambolinagaz),
- 48: endamas (A: endemas),
- 49: *Altunak ia orrialde osoa kentzen du: eta ongi deritzot horri, errakuntzaz aurreko orrialdea bi aldiz datorrelako, baina ez du kendu duenik esaten.*
- 60: baño (A: baino),
- 60: Conpesore (A: compesore),
- 61: piestiari (A: piestari),
- 61: gueratuteco (A: gueratutaco),
- 73: bidian (A: bidean),
- 86: Virgineen (A: Virginen),
- 87: ordenaac (A: ordenac),
- 92: Comp. (A: Caomp.),
- 93: choceas (A: choeas),
- 93: Bendicto (A: Benedicto),
- 102: egninac (A: eguinac, Mujikak ere berdin),
- 102: omoten (A: emoten),
- 106: Errijetaco (A: errijeetaco),


- 108: badau (A: bada),  
 111: ezpada (A: ezpada),  
 112: to (A: ta),  
 123: gustoz (A: guztoz),  
 126: orrec (A: orrec),  
 132: XiV (A: XIV, Mujikak ere berdin),  
 135: icentauta (A: incentauta),  
 139: daviltz (A: davilz, Mujikak ere berdin),  
 149: chaarrian (A: charrian),  
 152: Castigubaren (A: Castiguaren),  
 154: ez arren (A: ez arren, Mujikak ere berdin),  
 170: Santubaren, (A-n falta da),  
 174: êzdala (A: ez dala),  
 180: lõ (A: lo),  
 182: sentiduten (A: santiduten),  
 186: lõ (A: lo),

Zerrenda hau egin, eta akats batzuetan Mujikaren testuarekin bat datorrela ikusi arren, ez dot ziurtasun osoz atera nondik hartu eban bere testua Altunak; 1816ko testua edota faksimila erabili eikean. Badagoz faksimila erabili ebala uste izatera daren zertxo batzuk, baina baita kontrakora darenak bere. Esaterako, 139 orrialdeko 9. lerroan *daviltz* ageri da; halan da bere, Altunak (baita faksimilari jarraitzen deutson Mujikak bere) *daviltz* dakar; baliteke faksimilari jarraitu izatea, 1816.eko argitaraldian argi ageri dan *daviltz* formaren *t*, fakzimilean nekez irakurtzen da eta; behar bada, hortik izango da biek *t* galduz *daviltz* erabilte hori.

### 6) Eskema eta ondorioak

Argitaraldien, hau da, testuaren azterketa historiko labur honen eta euren artean izandako menpekotasunen eta erlazioen ondorio modura hurrengo eskema hau aurkeztu daikegu:

**Euscal-errijetaco oligueeta...**



Julen Urkiza - Patxi Uribarren